



2022/2023 denboraldia

## 40. ZIRKULARRA

### EPAILEEN KARTELDEGIA OREKATZEKO PREMIAZKO NEURRIAK

Honen bidez jakinarazi nahi dugu **2023ko urtarrilaren 15etik aurrera, partidetako arbitroen karteldegia orekatzeko asmoz, txandaka-txandaka, Ohorezko Erregional Mailako (gizonezkoena eta emakumezkoena) eta Gorengo taldeen (gizonezkoena) partida guztiak igandera eramango direla. Kategoria horiek, hain zuzen, marrazainak behar dituztenak dira.**

Nahitaez igandera lekualdatuko diren **partida horiek jokatzeko ordu tarte bat ezarri da**, hain zuzen ere, distantzia 50 km-tik gorakoa denerako ezarrita dagoen berbera: **11:00etatik 17:30era**.

Kategorien hasiera ordena zozketa bidez erabaki zen Futbol Afizionatuen Batzordeko kideen aurrean, eta horren emaitza hau izan zen:

- 1. Emakumezkoen Ohorezko Erregional Maila**
- 2. Gorengo 2. Taldea**
- 3. Gorengo 1. Taldea**
- 4. Gizonezkoen Ohorezko Erregional Maila**

**Behin-behineko neurria da, eta berrikusi liteke.** Dena den, karteldegia berez orekatuko balitz, ez litzateke neurri honetara jo beharko; horrenbestez, **klubei igandean ahalik eta partida gehien programatzeko** behar diren neurri gehigarriak hartzeko **eskatuko** zaie.

Neurri hori Epailen Batzorde Teknikoak aurkeztu zuen, Futbol Afizionatuen Batzordeak 2022ko abenduaren 14an aztertu eta onar zezan, eta estamentu horrek onartu egin zuen.

Gipuzkoako Futbol Federazioko Zuzendaritza Batzordeak, abenduaren 16an egindako azken bileran, neurria osorik berretsi zuen.

Abenduaren 22an, bi bilera telematiko egin ziren, eta horren berri eman zitzaizen neurriak eragiten dien eta parte hartu nahi izan zuten kategorietako klub guztiei.


Hona hemen partidak igandetan programatu beharko dituzten kategorien egutegia.



D. HONOR REGIONAL FEMENINO	EMAKUMEZKOEN OHOREZKO ERREGIONAL MAILA			
PREFERENTE G <sup>o</sup> 2	GORENGOEN 2. TALDEA			
PREFERENTE G <sup>o</sup> 1	GORENGOEN 1. TALDEA			
D. HONOR REGIONAL MASCULINO	GIZONEZKOEN OHOREZKO ERREGIONAL MAILA			
<b>TEMPORADA 2022/2023 DENBORALDIA</b>				
		<b>DHR</b>	<b>RP</b>	<b>DHRF</b>
	15/01/2023	17	15	15
	22/01/2023	18	16	16
	29/01/2023	19	17	17
Otsaila/Febrero	05/02/2023	20	18	18
	12/02/2023	21	19	19
Inauteriak/carnavales	19/02/2023	22	*	*
	26/02/2023	23	20	20
Martxoa/Marzo	05/03/2023	24	21	21
	12/03/2023	25	22	22
	19/03/2023	26	23	23
	26/03/2023	27	24	24
Erramu Igandea-Domingo Ramos	02/04/2023	28	25	25
Aste Santua/S.Santa	09/04/2023	*	*	*
Pazko Astea/S.Pascua	16/04/2023	*	*	*
	23/04/2023	29	26	26
	30/04/2023	30	27	27
Maiatza/Mayo	07/05/2023	31	28	28
	14/05/2023	32	29	29
	21/05/2023	33	30	30
	28/05/2023	34	F	*
Ekaina/Junio	04/06/2023	3x1	Pro	3x1

**Donostia, 2022ko abendua**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
 Iñigo Letamendi Artetxe  
 Idazkari Nagusia-Secretario General